

12. kronika : Euskara batua Iparraldean

Euskara eskuz esku (EEE) ikerketa bat da, Isabelle Duguine eta Battittu Coyosek deramatena, Euskaltzaindiaren itzalean. Ikergaia da Euskara Batua Ipar Euskal Herrian. Ikerketan partu hartu nahi dutenek galdetegia eska dezatela bati edo besteari. Gogotik onartuko dute partaidetza. Hona hemen nik eman ditudan erantzunak.

1. Zure ustez ba ote da Iparraldean euskara batu berezi bat ?

Bai, aspaldidanik Baxenabarre eta herrialdeek badute euskara batu historiko bat komunikazio publikoan. 1968z geroztik Euskara Batu modernoak bere lekua hartzen du eta Euskara Batu historikoa ordezkutzen. Haatik buruz buruko komunikazioan euskalkiak nagusi dira orain arte.

Hemen baxenabar-lapurtar euskalkia aipatzen dut, zuberotarra ez dut aski ezagutzen Iparralde osoaz mintzatzeko. Usaian euskalkiak hizkuntza mintzatuarekin uztartzen dira eta Euskara Batua hizkuntza idatziarekin. Beste bereizketa bat egokiago zait. Euskara Batua euskara publikoaren alorrean dago, askoren aitzineko mintzaldietan edo literatura idatzian. Aldiz euskara pribatuan, buruzburuko euskararen, gehiago erabiltzen dira euskalkiak, azpi-euskalkiak eta idiolektoak, adibidez lagunarteko elkar-rizketetan edo gutun pertsonaletan.

Zein dira Euskara Batua eta uskalkien arteko ezberdinasunak ?

Euskara batu historikoaren ahozko lekukoak dira elizako eta hautetsien predikuak, ohizko mintzaldiak, antzerki eta ikusgarri tradizionalak, irati emankizun gehienak. Zerk bereizten du eskualkietarik?

Euskalkietan lau alokutiboak erabiltzen dira. Alokutiboak dira mintzakidearen araberako mintzamoldeak, buruz buruko elkarritzketetan. Neska bati mintzo garelarik erraten dugu : “Gure etxea dun “. Mutiko bati “Gure etxea duk “. Errespetuzko mintzamoldean : “Gure etxea duzu”. Mintzamolde afektiboan : “Gure etxea duxu “. Euskara publikoan ez da alokutiboa erabiltzen entzuleak multzoan baitira : ”Euskalduna naiz”. Salbu elkarritzketan literarioetan, antzerki, bertsolari eta beste.

Euskara publikoan goi mailako ahozkeraren erabiltzen da, hizki guziak ahoskatuz : “Gure etxea da”. Euskara pribatuan “Gue txia uzu”. Hiru aldaketa : kontraktzioak, “i” eufonikoa eta alokutiboa.

2. Bi motako euskara batua.

Euskara batua aztertzerakoan bereiziko dira euskara batu historikoa eta euskara batu modernoa. Baxenabarre-Lapurdiko euskara publikoak aspaldidanik batasun bat badu bereiziki elizako perediku, hautetsien mintzaldi, Eskualduna eta Herria astekariaren eta debozionezko liburen eraginez. Leizarraga edo Axularganaino iragan gabe, Euskara Batu

historikoaren ezaugarri nagusiak dira Lhande eta Tournier-Lafitten hiztegiak eta Lafitten gramatika.

Euskara Batu modernoa definitu zen 1968an Euskaltzaindiaren Arantzazuko biltzarrean eta 1978an bururatu Bergarako aditz batuaren biltzarrean. Euskara Batu historikoa eta modernoaren arteko jarraipena nabari da. Baionako « euskal idazkaritza »-ren biltzarra lekuko 1964an. Orain ere, hiztegi zaharra eta berria konparatzen baditugu, Tournier-Lafitten kasik hitz guziak Euskaltzaindiaren Hiztegian aurkitzen dira. Aldaketa nagusia aditz jokoan gertatzen da. Lafittek Baxenabarreko eta Lapurdiko aditz jokoak bereizten zituen (*LAB: zu zare, NAV: zu zira, p. 260*). Aldiz Euskal Aditz Batua erdigunean da Gipuzkera eta Nafarro-Lapurteraren artean. Ondorioz adizkitegi bakarra da Euskal Herri osorako.

Gaur egun euskara batu historikoak jarraitzen du Herria astekarian, beste hedabideetan, ohizko mintzaldi publikoetan. Baina urratsez urrats euskara batu modernoak lekua hartzen dio eskolaren eraginez eta itzulpen ofizialen bidez. Euskara pribatua da euskalkien eta idiolektoen eremua. Noiz arte ?

EEPko itzulpen lantaldeak 1200 idazki landu ditu, egitura anitz laguntzeko: Herriko Etxeak (seinaletika), Bil eta Garbi, Euskal Elkargoa, euskoa, ospitalea, klinikak (Belharra), altzari saltegiak (Ikea), epizeriak, urdaitegiak, okindegiak, pastizategiak, ostatuak (menu eta edari), farmaziak eta beste. Corpus harrigarri bat badugu, sailkatu beharko duguna baliagarriago izan dadin. Jadanik estilo fitxa batzu eginak dira. Anitz gauza berri aurkitu ditugu, hiztegieta ez daudenak. Ohartu gara itzulpengintzak eskatzen duela asmamena eta sorkuntza. Nola itzul zenezake “*tabouret*” edo “*en vrac*” ?

Euskara batu modernoaren ahozko lekukoak dira Hegoaldeko irratia, mintzaldi berezituak, ikastetxeetako kurtsoak, bertsolaritza besteak beste.

3. Zoin dira ahozko euskara batuaren ezaugarriak?

Euskara batu historiko idatziaren ezaugarriak dira Tournier-Lafitten hiztegia eta Lafitten gramatika. Lekukoak « Herria » astekaria eta literatura xaharra.

Euskara batu modernoak ekartzen duen aldaketa nagusia da aditz jokoaren sinplifikazioa eta hiztegiaren estandarizatzea.

Euskara batu idatziaren lekukoak dira Ikas liburuak, gaurko literatura, Berria egunkaria eta Argia hilabetekaria, EKE eta EEPren idazkiak, EEPen kudeatu diren 1200 idazki administratiboen corpora, bereziki Nola Erran, Euskalterm eta Hiztegi Batua hiztegiak erabiliz.

4. Zein dira Iparraldean Euskara Batuari lotuak diren arazoak ?

Euskara batu historikoa daukagunez euskara batu modernoa ez da hain nabari elkar ulertzeko euskara publikoaren eremuan. Euskara Batu modernoa eskolan ikasten da eta euskaldun helduen gehiengoa ez da alfabetatua. Inkesta berri batek erakusten du euskal kulturaren kontsumoa ahula dela bereziki Iparraldean.

5. Euskara batua kalteak ekarten ote dizkie Iparraldeko euskalkiei ?

Hemendik aitzina euskara batu modernoa da aipagai .Euskara batuak ez die kalterik egiten Iparraldeko euskalkiei, bata komunikazio publikoan erabiltzen delakotz gehienik eta besteak komunikazio pribatuan.

6. Iparraldeko berezitasunak zaindu behar ote dira ? Zendako ?

Iparraldeko eta Hegoaldeko hizkeren berezitasunak zaindu behar dira (estandarizatu ondoren), ororen kultura aberastasunak baitira. Euskara batua betidanik da euskara bildua.

7. Aniztasuna baliagarri ote da euskaraentzat ?

Bai eta bi ikuspuntutik.

Aniztasun kantitatboa beharrezko da euskaldunentzat. Ezin gara bizi euskararekin bakarrik. Gainera elebitasunaren ondorio onak nabarrak dira norbanakoentzat, alor askotan.

Kalitatezko anitz tasuna bizkortasunaren ezaugarria da hizkuntza guzientzat. Frantsesa ez da berdina Parisen, Marsellan, Montrealen eta Abidjanen. Frantsesez ez dute berdin hitzegiten hiztun helduek, gaztetxoek, esakesatzaileek, hizkuntzalariek. Bizimolde guziek badituzte beren « argotak », soldadoek, langileek, futbolariak. Euskal hiztunen artean gauza bera gertatzen den neurria marka ona euskararentzat. Horiek hola akademia beharrezkoa da arauak finkatzeko Berdintasunaren eta berezitasunaren mugan dago araua.

*8. Beharrezkoa ikusten duzu Euskara Batuarn erabilera Iparraldean ?
Zendako ?*

Euskara batua beharrezkoa da euskaldun ororekin komunikatzeko, euskalkien gaintetik, mugaz bi aldetan eta diasporarekin. Euskara batua beharrezkoa da kultur ekoizpenarentzat ere eta hedabide zabalentzat, liburugintza, telebista, zinegintza, ikasmateriala eta beste. Seinlegintzaren alorrean eta orokorki itzulpengintzan, batasuna eta ulermena bilatu behar dira.

10. Zuk, Euskara Batua, non eta norekin erabiltzen duzu ?

Euskara batua erabili dut irakasle lanetan, UZEI, UEU, EHU-UPN, Eskoriatza, HABE. Pedagogia lanetan ere berdin, Euskaraz Bizi, Sakelako Hiztegia. Aldizkari artikuluetan, Jakin, Bat, Berria, Herria, Euskera, Argia. Orain euskara batua erabiltzen dut EKEko soziolinguistika kroniketan, EEPn itzulpen lankidetzan, Sustapen Batzordeko lanetan, besteak beste.

12. Zer falta da euskara batuan ?

Euskara batuan gauza batzu falta dira. Adibidez 14. arauak « *hi eta no* » aloutiboak landu zituen. Oraindik ez dugu « *zu* » errespetuzko alokutiboa, ez eta « *xu* » adizki afektiboa ere. Hitz barneko « *h* », *alha* onartua da, baina ez *erhi*, *burhaso*, *orhoit*...

Euskara batuaen lagungarri baditugu hiztegi eraginkorrak : Nola Erran hiztegia eta lokuziotegia, Euskalterm 6 hizkuntzatan eta 38 eremu sailkatuz, besteak beste. Bestalde Iparraldeko itzupengintza hiru hiztegi xahar biziki baliosak dira : Azkue hiru hizkuntzetan, Lhande euskaratik frantsesera eta Tournier-Lafitte frantsesetik euskarara.

13. Zerbait gehiago ba ote duzu erraiteko euskara batuaz eta euskalkiez Iparraldean?

Euskaldun helduek sortzezko euskalkia erabiliko dute.

Eta euskaldun gazteagoek?

Hain segur euskara AEKn edo eskolan bakarrik ikasi dutenek batua erabiliko dute. Eskolan eta familian ikasi dutenek tokiko euskalkian ere trebatuko dira adibidez 4 alokutiboak erabiliz, ahoskera berezian mintzatuz (adibidez “i” eufonikoa *etxia*, *suia*, *liburia*, *jitian*..).

Euskalkiak desagertuko direa?

Eskualkiek iraunen dute, euskarak bizkor irauten badu. Erdibide bat aurkituko da Euskara Batu modernoa eta euskalki bakoitzaren artean, euskara batu historikoan gertatu den bezala. Euskaltzaindiak berezitasun gehiago onartuko ditu (adibidez zukako eta xukako alokutiboak), eskolaren bidez hiztegi idatzia eta mintatua hurbilduko dira eta aditz jokoaren ezberdintasunak leunduko (zira, zare, zara). Eta euskalki bakoitza euskara baturantz hurbilduko den neurrian, elkarren arteko ulermena ere zabalduko da.

Problema nagusia da euskararen bizitasuna. Bizkor izanen den neurrian ezberdintasunak barneratuko ditu, eta gizarte bizitzaren aldaketei egokituko zaie. Arriskua da euskara eskola hizkuntza bilaka dadin, gero militanten hizkuntza eta azkenean hizkuntzalarien hizkuntza. Euskararen geroa euskaldunen aho-mihitan da.

Erramun Bachoc, 2018-12-05